

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

418/2025 Foru Agindua, urriaren 9koa, enpresaburuek, profesionalek eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar duten zentsu aitortpenaren 036 eredua aldatzen duena.

Abenduaren 23ko 679/2014 Foru Aginduaren bidez onetsita geratu zen enpresaburuek, profesionalek eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar duten zentsu aitortpenaren 036 eredua, baita identifikazio fiskaleko zenbakia-
ren txartel eredua ezarri ere.

Abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan sartuz joan diren aldaketan ondorioz, eredu horrek ere hainbat aldaketa izan ditu apurka-apurka. Hala, foru agindu horren lehen eranskina agindu hauek aldatu dute: urriaren 2ko 416/2017 Foru Aginduak (2017/10/09ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN); azaroaren 7ko 512/2019 Foru Aginduak (2019/11/12ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN); uztailaren 14ko 410/2021 Foru Aginduak (2021/07/15eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN); eta uztailaren 13ko 309/2023 Foru Aginduak (2023/07/18ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN).

Oraingoan ere, zergadunen zerga betebeharrak egoki kudeatu eta egiaztatzea ahalbidetzen duen informazioa lortzeko era hobetze aldera, 036 ereduaren edukiak aldatu behar dira enpresaburuen, profesionalen eta beste zergadun batzuen errolda xede horretarako tresna egokia izan dadin.

Aldaketa honen bidez, hobetu egiten dira hainbat laukitxotan sartu behar diren datuak. Alde batetik, identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZa) galeragatik eskatzeko laukitxoak aldatu eta «bi-koiztua» izena jartzen zaio, eta horrekin erraztu eta sinplifikatzen da hura eskatu eta emateko modua; eta bestetik, hobekuntzak sartzen dira bai enpresa handiaren izaerari buruzko laukitxoan eta bai balio erantsiaren gaineko zergan hainbanaketa bereziari buruzkoan, besteak beste. Era berean, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 26ko 3/2023 Foru Dekretu Araue-mailea onetsi zela eta, eguneratzen dira balio erantsiaren gaineko zergaren araudira egiten diren igorpenak, eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunari buruzko maiatzaren 23ko 12/2002 Legean jasotzen diren konexio puntuetara egiten diren igorpenekin ere gauza bera egiten da.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea abenduaren 23ko 679/2014 Foru Agindua, enpresaburuek, profesionalek eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar duten zentsu aitortpenaren 036 eredua onetsi, eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren txartela ezartzen duena.

Enpresaburuek, profesionalek eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar duten zentsu aitortpenaren 036 eredua onesten duen abenduaren 23ko 679/2014 Foru Aginduaren I. eranskinarekin ordez, foru agindu honen eranskina ezartzen da.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 418/2025, de 9 de octubre, por la que se modifica el modelo 036 de declaración censal que han de presentar a efectos fiscales los empresarios, los profesionales y otros obligados tributarios.

Por Orden Foral 679/2014, de 23 de diciembre, se aprobó el modelo 036 de declaración censal que han de presentar a efectos fiscales los empresarios, los profesionales y otros obligados tributarios y el modelo de tarjeta acreditativa del número de identificación fiscal.

Dicho modelo ha sido objeto de sucesivas modificaciones como consecuencia de las modificaciones introducidas en el Reglamento que desarrolla determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre. Así, el primer anexo de la citada orden foral ha sido objeto de modificación en las Ordenes Forales 416/2017, de 2 de octubre (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 09/10/2017); 512/2019, de 7 de noviembre (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 12/11/2019); 410/2021, de 14 de julio (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 15/07/2021); y 309/2023, de 13 de julio (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 18/07/2023).

Una vez más, y con el objeto de mejorar la obtención de información para la adecuada gestión y comprobación de las obligaciones tributarias de las y los contribuyentes, resulta necesario modificar los contenidos del modelo 036 a fin de que el censo de empresarios, profesionales y otros obligados tributarios resulte una herramienta adecuada para tal finalidad.

A través de la presente modificación se incluyen mejoras en los datos a incluir relativos, por una parte, a la casilla de solicitud de número de identificación fiscal (NIF) por extravío, que pasa a denominarse «duplicado», facilitando y simplificando dicha solicitud y su concesión, y, por otra, a la casilla de la condición de gran empresa y a la información relativa a la prorratea especial en el impuesto sobre el valor añadido, entre otros aspectos. Así mismo, se actualizan las remisiones a la normativa del impuesto sobre el valor añadido, motivada por la aprobación del Decreto Foral Normativo 3/2023, de 26 de julio, del Impuesto sobre el Valor Añadido y a los puntos de conexión de la Ley 12/2002, de 23 de mayo, del concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo único. Modificación de la Orden Foral 679/2014, de 23 de diciembre, por la que se aprueban el modelo 036 de declaración censal que han de presentar a efectos fiscales los empresarios, los profesionales y otros obligados tributarios y el modelo de tarjeta acreditativa del número de identificación fiscal.

Se sustituye el anexo I de la Orden Foral 679/2014, de 23 de diciembre, por la que se aprueban el modelo 036 de declaración censal que han de presentar a efectos fiscales los empresarios, los profesionales y otros obligados tributarios, por el anexo de la presente orden foral.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2025eko urriaren 9a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (7047)

Disposición final única. Entrada en vigor.

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 9 de octubre de 2025.—La diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas. (7047)

Gipuzkoako Foru Aldundia Ogasun eta Finantza Departamentua  Diputación Foral de Gipuzkoa Departamento de Hacienda y Finanzas www.gipuzkoa.eus/ogasuna *8400032612025*	ZENTSU AITORPENA	036
---	---------------------------	--------------

Zerga betebeharraren formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, 2013ko abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuak onartua; eta uztailaren 15eko 640/2008 Foru Agindua, pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko entitateen identifikazio fiskaleko zenbakiaren osaera eta erabilpena arautzen dituen.

INPRIMAKIA BETETZEKO JARRAIBIDIAK

1. ATALA: AURKEZPENAREN ARRAZOIAK

Zentsuko alta, aldaketa eta baje berri ematera behartuta daude Gipuzkoan enpresa jarduerak edo jarduerak profesionalak egin edo egingo dituzten pertsona edo entitateak, bai eta enpresa jarduerak edo profesional gisa jarduten ez diren pertsona juridikoak ere baldin eta haien batasun barruko ondasunen erosketak BEZari lotuta badaude.

Jar ezazu "X" behar diren laukietan, aurkezpenaren arrazoiak zein den kontuan hartuz.

HASIERAREN AITORPENA

- A) Eragiketarak hasi aurreko aitorpena: aitorpen hau aurkeztu beharko du enpresariak edo profesionalak, haien jardueraren xede diren ondasun salmentak edo zerbitzu prestazioak benetan maiztasunez hasi aurretik jasan dituzten kuoten itzulketa eskatzeko, 3/2023 Foru Dekretu Arauemailak, uztailaren 26koak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoak, 111. artikuluan jasotakoaren arabera.

"2. Atala: kokalekua", "3. Atala: datu zentsalak" eta "5. Atala: zerga egoera eta aitorpen-likidazioak" bete behar dira kasu guztietan.

Aurkezteko epea: Eragiketarak egiten hasi aurreko aitorpen zentsalak aurkeztu den data eta ondorengo hilabete barneko baliozko data izan dezake gehienez.

- B) Eragiketarak hasi izanaren aitorpena: Enpresa jarduerak edo jarduerak profesional bat edo batzuk hasi behar dituzten enpresari edo profesionalak, baita enpresari edo profesional izan gabe, atxikipen edo konturako sarrerak egitera lotuak dauden errentak ordaindu edo zor dituzten pertsona juridikoei eta entitateei aurkeztu beharko dute aitorpen hau. Era berean, enpresari edo profesional gisa jardun gabe, edo atxikipenei lotutako errentarik ordaindu gabe, BEZari lotutako europar batasun barruan ondasun erosketak egiten dituzten pertsona juridikoei ere aurkeztu beharko dute aitorpen hau.

Kasu guztietan "2. Atala: kokalekua", "3. Atala: datu zentsalak" eta "5. Atala: zerga egoera eta aitorpen-likidazioak" bete beharko dira. Gainera, dagokion kasuan, "4. Atala: eskaera bereziak", "7. Atala: batasunaren barruko eragiketarak", I.go Eranskina, kide eta partaidea, eta II. Eranskina, ez egoiliarren eta BEZaren beste hainbat egoera eta aukerak bete beharko dira.

Aurkezteko epea: Jarduerak hasi, atxikitzeko obligazioa sortu edo batasun barruko eragiketarak egin aurretik. Epe barruan aurkeztutako aitorpena bai PFEZ eta BEZeko, bai Sozietateen gaineko Zergak aukerak, altak eta uko egiteak aitorzeko balio du.

ALDAKETAREN AITORPENA

Identifikazio datuak edo zentsu aitorpenaren atalean jasotako datuak aldatzen direnean aurkeztu behar da aitorpen hau. Atalean eskatutako datu guztiak bete behar dira. Aldaketak indarrean noiz sartuko diren adieraziko da.

Zerga betebeharren aldaketak "4. Atala: eskaera bereziak" atalean jaso behar dira, aukera egin edo uko egiteko; "5. Atala: zerga egoera eta aitorpen-likidazioak" atalean horren ondorioz gauzatutako zerga betebeharrak adieraziz.

Aurkezteko epea:

- Datuen aldaketa: oro har, hilabeteko epean, aldaketa eragin duten gertakariak izan diren egunetik aurrera.
- Betebeharren aldaketa: aldaketa horrek eragindako aldizkako lehen aitorpena edo aldaketa hori gertatu ez balitz aurkeztu behar litzatekeen aitorpena aurkezteko epearen azken egunera arte.
- Araudian jasotakoak.

AMAIERAREN AITORPENA

Aitorpen hau aurkeztera behartuta daude enpresa jarduerak edo jarduerak profesional guztiak amaitu dituztenek edo, enpresari edo profesionalak izan gabe, atxikipenari lotutako etekinak ordaintzeari utzi diotenek.

Atal hau betetzean, amaiera eguna eta arrazoiak adierazi behar dira (jarduerak amaitzea, desagitea, likidatzea).

Likidaziorik egin ez duten pertsona juridikoak direnean (fusio, bereizketa osoa eta aktibo eta pasibo osoaren lagapena salbu), "5. Atala: Zerga egoera eta aitorpen-likidazioak", bete beharko dute, eta Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena aurkezteko betebeharrak adierazi.

Amaieraren arrazoiak fusioa, erabateko bereizketa edo aktibo eta pasiboaren lagapen osoa izan denean, entitateak eragiketaren azalpen laburra aurkeztu beharko du, bertan merkataritza eragiketaren izena eta deskribzioa agertuz, entitate eskuhartzaile guztiak identifikatzeaz gainera (IFZa eta izen deiturak edo sozietate izena).

Amaieraren arrazoiak jarduerak amaitzea eta zerga helbidea Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpora aldatzea ez denean (heriotza, desagitea, likidazioa, fusioa, erabateko bereizketa, aktibo eta pasiboaren lagapen osoa), ondorengo III. Eranskina bete beharko dute.

Aurkezteko epea:

- Hilabeteko epea, aipatutako amaieraren ondorengo egunetik aurrera.
- Sozietate bat likidatzen denean, edo fusio, erabateko bereizketa edo aktibo eta pasiboaren lagapen osoa dela medio desagertzen denean, amaieraren aitorpena hilabeteko epean aurkeztu beharko da Merkataritza Erregistroan oharpenak deuseztatu ondoren.
- Heriotza kasutan, epea sei hilabeteko izango da heriotza egunetik hasita.

IFZ-REN EDO TXARTELAREN ESKAERA

Sozietateek eta gainerako entitate egoiliarrek edo ez-egoiliarrek IFZa eta/edo IFZaren txartela eskatu beharko diote Gipuzkoako Foru Aldundiari:

- Gipuzkoan eratzen direnean edo Gipuzkoan zerga helbidea kokatzen dutenean.
- Lurralde espainiarrean egoitzarik ez badute, establezimendu iraunkorra Gipuzkoa dutenean.
- Lurralde espainiarrean egoitzarik ez badute eta establezimendu iraunkorrik gabe bertan aritzen badira, Gipuzkoan zerga izaerakoak diren edo zerga alorrean ondorioak dituzten ekintzak edo eragiketak egin behar ditutenean, aurretik beste administrazio batek IFZ bat eman ez badio.
- IFZaren identifikazio txartelaren datuak aldatu eta beste txartel bat eskatu behar dutenean, betiere zerga helbidea Gipuzkoan badu.

Kokalekuari buruzko atala eta IFZaren eskaerari buruzkoa bete behar dira. Errenten esleipen erregimeneko entitateak izanez gero, partaideei buruzko I. Eranskina ere bai.

Pertsona juridikoak direnean, zerga egoerari buruzko atala eta aitorten-likidazioei buruzkoa ere beteko dira. Baldin eta Sozietateen gaineko Zergari lotuta badaude eraketa dela eta IFZa eskatzen dutenean, I. Eranskina beteko dute, eta eranskin horretan bazkide, kide edo partaide sortzaileei edo eraketa sustatzen dutenei buruzko informazioa adierazi behar dute, partaidetza portzentaia jarrita.

Espainiako lurraldean egoiliar ez diren entitateak direnean, II. Eranskina bete behar dute.

Aurkezteko epea:

- IFZ zenbakiaren eskaera: hogeita hamar eguneko epea lurralde espainiarrean eratu edo kokatzen diren ondorengo egunetik aurrera.
- IFZaren txartel berriaren eskaera: hogeita hamar egun aldaketak edo zirkunstantziak gertatzen direnetik aurrera.

IFZ-aren eskaera. Dokumentazioa:

Zenbaki eskaera. Dokumentazio hau aurkeztu behar da: entitatearen eraketa agiria (eskriturak, aktak, kontratuak eta abar), aitortenaren sinatzailearen nortasun agiriaren kopia (enpresaren administratzaile edo ahalordedun batena), ahalordeei buruzko agiriaren kopia, erregistroetako inskripzioaren kopia.

Txartelaren eskaera, izaera juridikoa edo izendapena aldatzeagatik. Aldaketa hori benetan gauzatzen duen agiriaren kopia aurkeztu behar da, dagokion erregistro publikoan inskribatua (hala badagokio), eta erregistroan aurkeztu zeneko data jasotzen duena.

Behin betiko txartelaren eskaera. Entitatearen eraketa gauzatzen duen agiriaren kopia aurkeztu behar da, dagokion erregistro publikoan inskribatua (hala badagokio), eta erregistroan aurkeztu zeneko data jasotzen duena.

Amaieragatik deuseztatzeko eskaera. Entitatearen desegitea edo likidazioa gauzatzen duen agiriaren kopia aurkeztu behar da, dagokion erregistro publikoan inskribatua (hala badagokio), eta erregistroan aurkeztu zeneko data jasotzen duena.

IFZ-AN, IZENEAN EDO SOZietATE IZENEAN ALDAKETAK

Aldaketaren zergatia, 212 laukian adierazi behar da.

Aldaketaren arrazoia izena edo sozietate izenaren aldaketa bada, ezin da momentuan erabiltzen ari den berdina izan. Aldaketa horien kasuan eta entitateen forma juridikoaren kasuan, aldeztu aurretik zeuden aldatu nahi diren datuak zehaztu beharko dira, eta lehen orriko 1 eta 2 laukietan datu berriak sartu beharko dira.

Lauki hauek identifikazio datuetan erroreak komunikatzeko ere erabiliko dira.

Aitortenarekin batera aldaketa baieztatzen duten dokumentuak aurkeztuko dira.

Gipuzkoako Foru Aldundia Ogasun eta Finantza Departamentua  Diputación Foral de Gipuzkoa Departamento de Hacienda y Finanzas www.gipuzkoa.eus/ogasuna *8400032612025*	DECLARACIÓN CENSAL 036
---	--

Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, y Orden Foral 640/2008, de 15 de julio, por la que se regula la composición del NIF de las personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica.

INSTRUCCIONES PARA CUMPLIMENTAR EL IMPRESO

APARTADO 1: CAUSA DE LA PRESENTACIÓN

Las personas o entidades que desarrollen o vayan a desarrollar en Gipuzkoa actividades empresariales o profesionales o satisfagan rentas sujetas a retención o ingreso a cuenta en dicho territorio, así como las personas jurídicas que no actúen como empresarios o profesionales cuyas adquisiciones intracomunitarias de bienes estén sujetas al IVA, deberán comunicar el alta, las modificaciones y la baja en el censo.

Marque con una "X" las casillas que correspondan en función de cual sea la causa de presentación.

DECLARACIÓN DE COMIENZO

- A) Declaración anterior al inicio de operaciones: la presentarán los empresarios o profesionales con el objeto de solicitar la devolución de las cuotas soportadas con anterioridad al comienzo habitual efectivo de las entregas de bienes o prestaciones de servicios que constituyen el objeto de su actividad, conforme al art. 111 del Decreto Foral Normativo 3/2023, de 26 de julio, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Se cumplimentarán los apartados “2: Localización”, “3: Otros datos censales” y “5: Situación tributaria y declaraciones liquidaciones” en todos los casos.

Plazo de presentación: La declaración previa al inicio de operaciones tiene fecha de efectos la fecha de presentación y hasta un mes para adelante.

- B) Declaración de inicio de operaciones: la presentarán los empresarios o profesionales que vayan a comenzar el ejercicio de una o varias actividades empresariales o profesionales y las personas jurídicas o entidades que, sin ser empresarios o profesionales, vayan a satisfacer, abonar o adeudar rentas sujetas a retención o ingreso a cuenta. También las personas jurídicas que, sin actuar como empresarios o profesionales, ni satisfacer rentas sujetas a retención, vayan a realizar adquisiciones intracomunitarias de bienes sujetas a IVA.

Se cumplimentarán los apartados “2: Localización”, “3: Otros datos censales” y “5: Situación tributaria y declaraciones liquidaciones” en todos los casos. Si correspondiera, además, se cumplimentará el apartado 4 de “Solicitudes específicas”, el apartado 7 de “Operaciones intracomunitarias”, el Anexo I de miembros y partícipes y el Anexo II de no residentes y otras situaciones y opciones en el IVA.

Plazo de presentación: Con anterioridad al inicio de las actividades, al nacimiento de la obligación de retener o a la realización de operaciones intracomunitarias. La declaración presentada en plazo servirá para realizar las opciones, altas y renunciaciones tanto en IRPF e IVA como en el Impuesto sobre Sociedades.

DECLARACIÓN DE MODIFICACIÓN

Se presentarán cuando se modifiquen los datos identificativos o los recogidos en los distintos apartados de la declaración censal. Se cumplimentarán todos los datos solicitados en el apartado. Se debe señalar la fecha en la que deben surtir efecto las modificaciones que se ponen de manifiesto.

Las modificaciones de obligaciones tributarias se reflejan en el “Apartado 4: Solicitudes específicas” en las que se realizan las opciones y renunciaciones, señalándose en el “Apartado 5: Situación tributaria y declaraciones liquidaciones” las obligaciones fiscales resultantes.

Plazo de presentación:

- Modificación de datos: con carácter general, un mes a contar desde el día en que se hayan producido los hechos que la determinan.
- Modificación de obligaciones: hasta el vencimiento del plazo para la presentación de la primera declaración periódica afectada por la variación o de la que hubiere debido presentarse de no haberse producido dicha variación.
- El establecido en la normativa correspondiente.

DECLARACIÓN DE CESE

La presentan quienes cesan en el ejercicio de toda actividad empresarial o profesional, o no teniendo la condición de empresario o profesional dejen de satisfacer rendimientos suietos a retención.

Se cumplimentará indicando la fecha de cese y su causa (cese de actividad, disolución, liquidación).

En el caso de personas jurídicas que no se liquiden (excepto en los supuestos de fusión, escisión total y cesión global del activo y del pasivo) deberán cumplimentar el “Apartado 5: situación tributaria y declaraciones liquidaciones”, señalando su obligación de presentar declaración por el Impuesto sobre Sociedades.

Cuando la causa del cese fuera por consecuencia de fusión, escisión total o cesión global del activo y del pasivo, la entidad deberá presentar una breve memoria explicativa de la operación, haciendo constar la denominación y descripción de la operación mercantil efectuada, así como la identificación (NIF y nombre o razón social) de todas las entidades intervinientes.

Quando la causa del cese fuese por consecuencia distinta de la del cese de actividad o del cambio de domicilio fiscal fuera del Territorio Histórico de Gipuzkoa (fallecimiento, disolución, liquidación, fusión, escisión total o cesión total del activo y del pasivo), deberán cumplimentar el anexo III “Relación de sucesores”.

Plazo de presentación:

- Un mes a partir del día siguiente al indicado cese.
- Cuando una sociedad se liquide o bien se extinga como consecuencia de operaciones de fusión, escisión total o cesión global del activo y del pasivo, la declaración de cese deberá ser presentada en el plazo de un mes una vez realizada la cancelación de los correspondientes asientos en el Registro Mercantil.
- En caso de cese causado por el fallecimiento de su titular, el plazo es de seis meses desde la fecha de fallecimiento.

SOLICITUD DE NÚMERO Y/O TARJETA DEL NIF

Las sociedades y demás entidades, residentes o no residentes en territorio español, deberán solicitar el NIF y/o la tarjeta del NIF ante la Diputación Foral de Gipuzkoa cuando:

- Se constituyan o establezcan con domicilio fiscal en Gipuzkoa.
- Sean no residentes en territorio español que operen con establecimiento permanente en Gipuzkoa.
- Sean no residentes en territorio español que operen sin mediación de establecimiento permanente, cuando vayan a realizar en Gipuzkoa actos u operaciones de naturaleza o con trascendencia tributaria, salvo que con anterioridad otra Administración Tributaria le haya asignado un NIF.
- Se modifiquen los datos de la tarjeta identificativa del NIF y deban solicitar una nueva tarjeta, siempre que su domicilio fiscal radique en Gipuzkoa.

Cumplimentarán los apartados de “Solicitud del número de identificación fiscal” y “2: Localización”. En caso de entidades en atribución de rentas, también el Anexo I.

En el caso de personas jurídicas también cumplimentarán el “Apartado 5: Situación tributaria y declaraciones liquidaciones”. Si están sujetas al Impuesto sobre Sociedades, cuando realicen la solicitud del NIF por su constitución, cumplimentarán el Anexo I señalando en el mismo la información referente a los socios, miembros o partícipes fundadores o que promuevan su constitución, indicando el % de participación.

Cuando se trate de entidades no residentes en territorio español, deberán rellenar el Anexo II.

Plazo de presentación:

- Solicitud de número NIF: en los treinta días siguientes a la fecha en que se constituya o establezca en territorio español.
- Solicitud de nueva tarjeta NIF: en los treinta días desde el momento en que se produzcan las modificaciones o circunstancias por las que debe solicitarse una nueva tarjeta.

Solicitud de NIF. Documentación:

Solicitud del número. Se adjuntará la siguiente documentación: documento por el que se constituye la entidad (escrituras, actas, contratos, etc.), copia del DNI de la persona que firme la declaración, que será un administrador o apoderado de la empresa, copia del documento que describa sus poderes y copia de la inscripción en los Registros correspondientes.

Solicitud de tarjeta por modificación de forma jurídica o denominación. Se adjuntará copia del documento en el que se hace efectiva esa modificación, inscrito en el registro público correspondiente (en su caso) y que incluya la fecha de presentación en el registro.

Solicitud de tarjeta definitiva. Se adjuntará copia del documento constitutivo, inscrito en el registro público correspondiente (en su caso) y que incluya la fecha de presentación en el registro.

Solicitud de anulación por cese. Se adjuntará el documento por el que se liquida o disuelve la entidad, inscrito en el registro público correspondiente (en su caso), y que incluya la fecha de presentación en el registro.

MODIFICACIÓN DEL NIF, NOMBRE O RAZÓN SOCIAL

El motivo del cambio debe manifestarse en la casilla 212.

Si el motivo es el cambio de nombre o razón social no puede coincidir con el que actualmente está en uso. En el caso de dichos cambios y en la forma jurídica de las entidades, deberán detallarse los datos anteriores que se desean modificar, e introducir los nuevos en las casillas 1 y 2 de la primera página.

También se utilizarán estas casillas para comunicar la existencia de errores en los datos identificativos.

La declaración se acompañará con los documentos acreditativos de dicha alteración.

ZERGAPEKOA EDO ORDEZKARIA / OBLIGADO TRIBUTARIO O REPRESENTANTE			
51 NA / DNI	52 Deiturak eta izena / Apellidos y nombre		ADMINISTRAZIOA ADMINISTRACION
53 Firma en calidad de	gisa sinatzen du	54 Data / Fecha	
55 Sinadura / Firma			

Gipuzkoako Foru Aldundia Ogasun eta Finantza Departamentua Diputación Foral de Gipuzkoa Departamento de Hacienda y Finanzas www.gipuzkoa.eus/ogasuna <td> ZENTSU AITORPENA DECLARACION CENSAL </td><td> 036 Erreferentzia zk. N° Referencia </td>	ZENTSU AITORPENA DECLARACION CENSAL	036 Erreferentzia zk. N° Referencia
---	---	---

IDENTIFIKAZIO DATUAK / DATOS IDENTIFICATIVOS	
1 IFZ / NIF	2 Deiturak eta izena edo sozietate izena / Apellidos y nombre o razón social

1. ATALA: AURKEZPENAREN ARRAZOIA / APARTADO 1: CAUSA DE LA PRESENTACION	
HASIERA COMIENZO 3 ☐ Eragiketak hasi aurreko aitortpena Declaración anterior al inicio de operaciones 4 ☐ Eragiketak hasi izanaren aitortpena Declaración de inicio de operaciones	ALDAKETA MODIFICACIÓN 6 ☐ 2. atala: Kokalekua / Apto. 2: Localización 7 ☐ 3. atala: Zentsuko bestelako datuak Apto. 3: Otros datos censales 8 ☐ 4. atala: Eskaera bereziak Apto. 4: Solicitudes específicas 9 ☐ 5. atala: Zerga egoera Apto. 5: Situación tributaria 10 ☐ 7. atala: Batasunaren barruko eragiketak Apto. 7: Operaciones intracomunitarias 11 ☐ I. Eranskina: Partaideak Anexo I: Participes 130 ☐ II. Eranskina: Ez-egoiliarak eta BEZeko beste aukera batzuk Anexo II: No residentes y otras opciones en el IVA
AMAIERA CESE 5 ☐ Amaiera Cese 14 ☐ III. Eranskina: Oinordekoak Anexo III: Sucesores	
IFZren edo txartelaren eskaera Solicitud de número y/o tarjeta del NIF 13 ☐	
Eragin data Fecha efecto 12	

IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIAREN ESKAERA / SOLICITUD DEL NUMERO DE IDENTIFICACIÓN FISCAL	
IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIAREN ESKAERA SOLICITUD DEL NÚMERO DE IDENTIFICACIÓN FISCAL Hasieragatik ematea / Asignación por comienzo 200 ☐ Entitatearen eraketa data Fecha de constitución de la entidad 206 Izaera juridikoa aldatzeagatik ematea Asignación por modificación forma jurídica 201 ☐ Amaieragatik deuseztatzea / Anulación por cese 202 ☐	IDENTIFIKAZIO TXARTELAREN ESKAERA SOLICITUD DE TARJETA IDENTIFICATIVA Kopia / Duplicado 203 ☐ Erregistroko inskripzio data Fecha inscripción Registro 207 Behin betikoa / Por definitiva 204 ☐ Bestelako arrazoiak / Por otros motivos 205 ☐

IFZ, DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATE IZENA ALDATZEA / MODIFICACIÓN NIF, NOMBRE RAZÓN SOCIAL		
210 Aurreko IFZ / NIF anterior	211 Aurreko deiturak eta izena, edo sozietate izena / Apellidos y nombre o razón social anterior	212 Aldaketaren zergatia / Motivo cambio

ZERGAPEKOA EDO ORDEZKARIA / OBLIGADO TRIBUTARIO O REPRESENTANTE			
51 NA / DNI	52 Deiturak eta izena / Apellidos y nombre	ADMINISTRAZIOA ADMINISTRACION	
53 Firma en calidad de	gisa sinatzen du 54 Data / Fecha		
55	Sinadura / Firma		

Aitortzailearen Alea / Ejemplar para el Interesado

Gipuzkoako Foru Aldundia Ogasun eta Finantza Departamentua  Diputación Foral de Gipuzkoa Departamento de Hacienda y Finanzas www.gipuzkoa.eus/ogasuna	ZENTSU AITORPENA HELBIDEAK ETA BESTELAKO DATU ZENTSALAK DECLARACION CENSAL DOMICILIOS Y OTROS DATOS CENSALES	036
--	--	-------------------

IDENTIFIKAZIO DATUAK / DATOS IDENTIFICATIVOS	
1 IFZ / NIF	2 Deiturak eta izena edo sozietate izena / Apellidos y nombre o razón social

2. ATALA: KOKALEKUA / APARTADO 2: LOCALIZACIÓN					
ZERGA HELBIDEA / DOMICILIO FISCAL					
29 Helbidea: kalea edo plaza / Domicilio: calle o plaza	30 Zk. / N.º	31 Letra / Letra	32 Eskail. / Escal.	33 Oina / Piso	34 Eskua / Mano
36 Udalerria / Municipio	37 Posta kodea / Cod. Postal	Gakoa / Clave	38 Probintzia / Provincia	Gakoa / Clave	

Bete itzazu bakarrik zerga helbidearekin bat ez datozen helbideak / Rellene sólo los domicilios que no coinciden con el domicilio fiscal

HELBIDE SOZIALA Jarri X, zerga helbidearekin bat etorritz gero DOMICILIO SOCIAL Marque con una X si coincide con fiscal						☐	
131 Helbidea: kalea edo plaza / Domicilio: calle o plaza			132 Zk. / N.º	133 Letra / Letra	134 Eskail./Escal.	135 Oina/Piso	136 Eskua/Mano
138 Udalerria / Municipio			139 Posta kodea / Cod. Postal	Gakoa / Clave	140 Probintzia / Provincia	Gakoa / Clave	

JARDUERA NAGUSIAREN HELBIDEA Jarri X, zerga helbidearekin bat etorritz gero DOMICILIO DE LA ACTIVIDAD PRINCIPAL Marque con una X si coincide con fiscal						☐
141 Helbidea: kalea edo plaza / Domicilio: calle o plaza		142 Zk. / N.º	143 Letra / Letra	144 Eskail./Escal.	145 Oina/Piso	146 Eskua/Mano
148 Udalerria / Municipio	149 Posta kodea / Cod. Postal	Gakoa / Clave	150 Probintzia / Provincia	Gakoa / Clave		

JAKINARAZPENEN HELBIDEA Jarri X, zerga helbidearekin bat etorriz gero DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIONES Marque con una X si coincide con fiscal						
151 Helbidea: kalea edo plaza / Domicilio: calle o plaza		152 Zk. / N.º	153 Letra / Letra	154 Eskail./Escal.	155 Oina/Piso	156 Eskua/Mano
158 Udalerria / Municipio	159 Posta kodea / Cod. Postal	Gakoa / Clave		160 Probintzia / Provincia	Gakoa / Clave	

3. ATALA: DATU ZENTSALAK / APARTADO 3: OTROS DATOS CENSALES			
24 Gipuzkoan al duzu egoitza? ¿Es residente en T.H. Gipuzkoa? Bai / Sí ☐ Ez / No ☐		25 Eragiketak hasi aurreko aitopenerako proposatutako kenkariaren behin-behineko portzentajea % Provisional de deducción propuesto a efectos de declaración anterior al inicio de operaciones % %	
26 Jarduera ekonomiko nagusia / Actividad económica principal		27 JEZaren epigrafea Epigrafe I.A.E.	28 Ohiko eta benetako hasiera data Fecha de inicio habitual y efectivo
251 Zein hizkuntzatan nahiago duzu harremana izan? Idioma preferente de comunicación Euskara ☐ Gaztelania ☐ Euskera ☐ Castellano ☐		252 Komunikaziorako/jakinarazpenetarako hobetsitako modua Medio preferente de comunicación/notificación Posta arrunta ☐ Elektronikoa ☐ Postal ☐ Electrónico ☐	
253 E-posta? ¿Correo electrónico? Alta ☐ Baja ☐	254 E-postako helbidea / Dirección de correo electrónico		255 Faxa? / ¿Fax? Alta ☐ Baja ☐
257 Telefono finkoa? ¿Teléfono fijo? Alta ☐ Baja ☐	258 Telefono finkoaren zenbakia / Número de teléfono fijo		259 Telefono mugikorra? ¿Teléfono móvil? Alta ☐ Baja ☐
261 Ba al duzu lozorrotutako enpresaren izaerarik ? / ¿Tiene la condición de sociedad durmiente? Bai / Sí ☐ Ez / No ☐			
264 Ba al duzu telefono mugikorrer, bideo-joko kontsoler, ordenagailu eramangarrier eta tableta digitalen birsaltzaile izaera, BEZaren 3/2023 FDeAren 84.Bat 2. artikulueren arabera? Tiene la condición de revendedor de teléfonos móviles, consolas de videojuegos, ordenadores portátiles y tabletas digitales de acuerdo con el artículo 84.Uno 2º del DFN 3/2023 del IVA? Bai / Sí ☐ Ez / No ☐			
262 Baimena ematen dut nire identitate eta harreman datuak, orri honetako 1 eta 2, 29tik 160ra eta 251tik 260ra arteko laukietan daudenak, bai eta haien eguneratzeak ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuei lagatzeko / Doy mi consentimiento para ceder mis datos de identidad y de contacto señalados en las casillas 1 y 2, 29 a 160 y 251 a 260 y sus actualizaciones, a los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa. ☐			
263 Bertan behera uzten dut nire identitate eta harreman datuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruan lagatzeko emandako baimena Revoco la autorización concedida para ceder mis datos de identidad y de contacto dentro del ámbito de la Diputación Foral de Gipuzkoa. ☐			
Bakarrik pertsona juridikoentzat edo errenten esleipen erregimeneko entitateetarako / Sólo para personas jurídicas y entidades en régimen de atribución de rentas			
49 Izaera juridikoa edo entitate mota / Forma jurídica o clase de entidad		50 Ekitaldi sozialaren itxiera data / Fecha de cierre del ejercicio social	

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Hacienda y Finanzas

www.gipuzkoa.eus/ogasuna

ZENTSU AITORPENA
HELBIDEAK ETA BESTELAKO DATU ZENTSALAK

DECLARACION CENSAL
DOMICILIOS Y OTROS DATOS CENSALES

036

IDENTIFIKAZIO DATUAK / DATOS IDENTIFICATIVOS

1 IFZ / NIF	2 Deiturak eta izena edo sozietate izena / Apellidos y nombre o razón social
-------------	--

2. ATALA: KOKALEKUA / APARTADO 2: LOCALIZACIÓN

ZERGA HELBIDEA / DOMICILIO FISCAL						
29 Helbidea: kalea edo plaza / Domicilio: calle o plaza		30 Zk. / N.º	31 Letra / Letra	32 Eskail. / Escal.	33 Oina / Piso	34 Eskua / Mano
36 Udalerria / Municipio	37 Posta kodea / Cod. Postal	Gakoa / Clave		38 Probintzia / Provincia		Gakoa / Clave

Bete itzazu bakarrik zerga helbidearekin bat ez datozen helbideak / Rellene sólo los domicilios que no coinciden con el domicilio fiscal

HELBIDE SOZIALA Jarri X, zerga helbidearekin bat etorritz gero DOMICILIO SOCIAL Marque con una X si coincide con fiscal						
131 Helbidea: kalea edo plaza / Domicilio: calle o plaza		132 Zk. / N.º	133 Letra / Letra	134 Eskail. / Escal.	135 Oina / Piso	136 Eskua / Mano
138 Udalerria / Municipio	139 Posta kodea / Cod. Postal	Gakoa / Clave		140 Probintzia / Provincia		Gakoa / Clave

JARDUERA NAGUSIAREN HELBIDEA Jarri X, zerga helbidearekin bat etorritz gero DOMICILIO DE LA ACTIVIDAD PRINCIPAL Marque con una X si coincide con fiscal						
141 Helbidea: kalea edo plaza / Domicilio: calle o plaza		142 Zk. / N.º	143 Letra / Letra	144 Eskail. / Escal.	145 Oina / Piso	146 Eskua / Mano
148 Udalerria / Municipio	149 Posta kodea / Cod. Postal	Gakoa / Clave		150 Probintzia / Provincia		Gakoa / Clave

JAKINARAZPENEN HELBIDEA Jarri X, zerga helbidearekin bat etorritz gero DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIONES Marque con una X si coincide con fiscal						
151 Helbidea: kalea edo plaza / Domicilio: calle o plaza		152 Zk. / N.º	153 Letra / Letra	154 Eskail. / Escal.	155 Oina / Piso	156 Eskua / Mano
158 Udalerria / Municipio	159 Posta kodea / Cod. Postal	Gakoa / Clave		160 Probintzia / Provincia		Gakoa / Clave

3. ATALA: DATU ZENTSALAK / APARTADO 3: OTROS DATOS CENSALES

24 Gipuzkoan al duzu egoitza? ¿Es residente en T.H. Gipuzkoa? Bai / Sí ☐ Ez / No ☐		25 Eragiketak hasi aurreko aitorpenerako proposatutako kenkariaren behin-behineko portzentajea % Provisional de deducción propuesto a efectos de declaración anterior al inicio de operaciones % %	
26 Jarduera ekonomiko nagusia / Actividad económica principal		27 JEZaren epigrafea Epígrafe I.A.E.	28 Ohiko eta benetako hasiera data Fecha de inicio habitual y efectivo
251 Zein hizkuntzatan nahiago duzu harremana izan? Idioma preferente de comunicación Euskara ☐ Gaztelania ☐ Euskera ☐ Castellano ☐		252 Komunikaziorako/jakinarazpenetarako hobetsitako modua Medio preferente de comunicación/notificación Posta arrunta ☐ Elektronikoa ☐ Postal ☐ Electrónico ☐	
253 E-posta? ¿Correo electrónico? Alta ☐ Baja ☐	254 E-postako helbidea / Dirección de correo electrónico		255 Faxa? / ¿Fax? Alta ☐ Baja ☐
257 Telefono finkoa? ¿Teléfono fijo? Alta ☐ Baja ☐	258 Telefono finkoaren zenbakia / Número de teléfono fijo		259 Telefono mugikorra? ¿Teléfono móvil? Alta ☐ Baja ☐
260 Telefono mugikorraren zenbakia / Número de teléfono móvil			
261 Ba al duzu lozorrotutako enpresaren izaerarik? / ¿Tiene la condición de sociedad durmiente? Bai / Sí ☐ Ez / No ☐			
262 Ba al duzu telefono mugikorraren, bideo-joko kontsolen, ordenagailu eramangarrien eta tableta digitalen birsaltzaile izaera, BEZaren 3/2023 FDAren 84.Bat 2. artikulua araberatzen? / Tiene la condición de revendedor de teléfonos móviles, consolas de videojuegos, ordenadores portátiles y tabletas digitales de acuerdo con el artículo 84.Uno 2º del DFN 3/2023 del IVA? Bai / Sí ☐ Ez / No ☐			
262 Baimena ematen dut nire identitate eta harreman datuak, orri honetako 1 eta 2, 29tik 160ra eta 251tik 260ra arteko laukietan daudenak, bai eta haien eguneratzeak ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuei lagatzeko / Doy mi consentimiento para ceder mis datos de identidad y de contacto señalados en las casillas 1 y 2, 29 a 160 y 251 a 260 y sus actualizaciones, a los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa. ☐			
263 Bertan behera uzten dut nire identitate eta harreman datuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruan lagatzeko emandako baimena Revoco la autorización concedida para ceder mis datos de identidad y de contacto dentro del ámbito de la Diputación Foral de Gipuzkoa. ☐			
Bakarrik pertsona juridikoentzat edo errenten esleipen erregimeneko entitateetarako / Sólo para personas jurídicas y entidades en régimen de atribución de rentas			
49 Izaera juridikoa edo entitate mota / Forma jurídica o clase de entidad		50 Ekitaldi sozialaren itxiera data / Fecha de cierre del ejercicio social	

Aitortzailearen Alea / Ejemplar para el Interesado

2. ATALA: KOKALEKUA

Zerga helbidea

- A) **Pertsona fisikoak** direnean, zerga helbidea ohiko egoitzarena izango da. Ekonomia Itunak jasotakoaren arabera, pertsona fisikoek ohiko egoitza Gipuzkoan dutela ulertu behar da baldin eta zergaldiko egun gehienetan lurralde horretan ematen badute (ikusi Ekonomia Itunari buruzko 12/2002 Legeak 43. artikuluan jasotakoa).
- B) **Entitateak** direnean, zerga helbidea kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza kokaturik dauden tokia izango da.
- C) **Establezimendu iraunkorrek aritzen diren subjektu pasibo ez-egoiliarren** zerga helbidea establezimendu horren kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza kokaturik dauden tokia izango da.
- D) **Establezimendu iraunkorrik gabe aritzen diren subjektu pasibo ez-egoiliarren** zerga helbidea Espainian izendatutako ordezkariaren zerga helbidearena izango da gehienetan.

Sozietate helbidea: bakarrik pertsona juridikoek eta errenten esleipen erregimenean ari diren entitateek bete behar dute atal hau. Sozietate helbide gisa agertzen da merkataritzako sozietateen estatutuetan.

Jardueraren helbidea: jarduera egiten den tokia izango da, bai pertsona fisikoentzat eta bai juridikoentzat. Derrigorrezkoa da 2. atala dagoenean, aurkezpenaren zergatia “eragiketak hasi aurreko aitortpena” denean izan ezik.

3. ATALA: ZENTSUKO BESTELAKO DATUAK

Gipuzkoan al duzu egoitza?: BAI erantzun behar diozu galderari, baldin eta zerga helbidea Gipuzkoan baduzu, edo EZ bestela.

Eragiketak hasi aurreko aitortpenerako proposatutako kenkariaren behin-behineko portzentajea: eragiketak hasi aurreko aitortpena denean, jarri behar duzu BEZaren ondorioetarako proposatutako behin-behineko portzentajea, betiere %100az bestelakoa bada.

Jarduera ekonomiko nagusia: jarduera ekonomiko nagusiaren deskripzio laburra idatzi behar duzu. Era berean, jarduera ekonomikoaren gaineko zergan jarduera horri eman zaion **epigrafea** ere adierazi behar duzu.

Jardueraren ohiko eta benetako hasieraren data: jardueraren ohiko hasiera zein egunetan gertatu den adierazi behar da, eragiketak hasi izanaren aitortpena aurkeztean.

Sozietate lozorrotuaren izaera: sozietate lozorrotutzat hartzen dira partaidetzak, akzioak eta fondo propioen gainerako tituluak hirugarren batzuei gerora eskualdatzeko asmoz eratzen diren eta eskualdaketa gauzatu egin bitartean inolako jarduera ekonomikorik egin gabe egoten diren sozietateak.

Ba al duzu telefono mugikorren, bideo-joko kontsolen, ordenagailu eramangarrien eta tableta digitalen birsaltzaile izaera, BEZaren 3/2023 FDaren 84.Bat 2. artikulua arabera?: BAI erantzun beharko duzu izaera hori duzula komunikatzeko. Komunikazio hori urtero luzatzen dela ulertuko da, harik eta birsaltzaile izaera galtzen duzun arte. Izaera hori galdu baduzu, EZ erantzun beharko duzu.

Izaera juridikoa: ezin da hutsik geratu aitortzailea persona juridikoa bada eta IFZaren letra hauetako bat bada: A, B, C, D, F, G, N, P, Q, R, S, U, V edo W.

3. Atala egonik, lauki hau bete behar da, IFZaren letra hauetako bat bada: A, B, C, D, F, G, N, P, Q, R, S, U, V edo W.

Izaera juridikoen kodea hutsik ez badago, IFZaren hasierako letrarekin bat egon behar da eta, hutsik badago, aldiz, IFZa letra hauetako batekin hasi behar da: H, J edo E.

APARTADO 2: LOCALIZACIÓN

Domicilio fiscal:

- A) En el caso de las **personas físicas** el domicilio fiscal coincidirá con su residencia habitual. Según el Concierto Económico, se entiende que las personas físicas tienen su residencia habitual en el Territorio Histórico de Gipuzkoa cuando permanezcan en dicho territorio más días del periodo impositivo (para mayor concreción ver el artículo 43 de la Ley 12/2002 de Concierto Económico).
- B) En el caso de las **entidades** el domicilio fiscal coincidirá con el lugar en el que radique la efectiva gestión administrativa y la dirección de sus negocios.
- C) El domicilio fiscal de los **sujetos pasivos no residentes que operen mediante establecimiento permanente** coincidirá con el lugar en el que radique la efectiva gestión administrativa y la dirección de los negocios de dicho establecimiento.
- D) El domicilio fiscal de los **sujetos pasivos no residentes que no operen mediante establecimiento permanente** coincidirá en la mayoría de los casos con el domicilio fiscal de su representante nombrado en España.

Domicilio social: Solamente deben cumplimentar este apartado las personas jurídicas y entidades en régimen de atribución de rentas. Es el que figura como domicilio social en los estatutos de las sociedades mercantiles.

Domicilio de la actividad: Será el lugar donde se desarrolla la actividad, tanto para las personas físicas como para las jurídicas. Es obligatorio cuando exista apartado 2, excepto cuando la causa de presentación sea “anterior al inicio de operaciones”.

APARTADO 3: OTROS DATOS CENSALES

¿Es residente en el Territorio Histórico de Gipuzkoa?: Debe responder que **SÍ** a la pregunta anterior si tiene el domicilio fiscal en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, o **NO** en caso contrario.

% provisional de deducción propuesto a efectos de declaración anterior al inicio de operaciones: En el caso de presentación de una declaración anterior al inicio de operaciones, debe consignar el porcentaje provisional de deducción propuesto a efectos de IVA, siempre que sea diferente al 100%.

Actividad económica principal: Debe escribir una breve descripción de la actividad económica principal que se va a desarrollar, indicando también el **epígrafe** que tiene asignada esa actividad en el Impuesto sobre Actividades Económicas.

Fecha de inicio habitual y efectivo de la actividad: hará constar el día en el que se inicia la actividad de forma habitual cuando presente la declaración de inicio.

Condición de sociedad durmiente: se consideran entidades durmientes aquellas que se constituyen con la finalidad específica de la posterior transmisión a terceros de sus participaciones, acciones y demás títulos representativos de los fondos propios sin que realicen ninguna actividad económica hasta dicha transmisión.

¿Tiene la condición de revendedor de teléfonos móviles, consolas de videojuegos, ordenadores portátiles y tabletas digitales de acuerdo con el artículo 84.Uno 2º del DFN 3/2023 del IVA?: deberá responder **SÍ** a la pregunta anterior si tiene dicha condición. La comunicación se entenderá prorrogada para los años siguientes en tanto no se produzca la pérdida de la condición de revendedor. En caso de haber perdido dicha condición, deberá responder **NO**.

Forma jurídica: sólo puede ser diferente de blanco si el declarante es una persona jurídica cuya letra NIF es una de las siguientes: A, B, C, D, F, G, N, P, Q, R, S, U, V o W. Es obligatorio rellenarlo/cumplimentarlo si, existiendo el apartado 3, la letra del NIF es alguna de las siguientes: A, B, C, D, F, G, N, P, Q, R, S, U, V o W. Si el código de la forma jurídica es distinto de blanco debe coincidir con la letra del NIF, y, si fuese blanco, el NIF debería tener alguna de las siguientes letras: E, H o J.

1 IFZ	2 Deiturak eta izena edo sozietate izena	Erreferentzia zk.
-------	--	-------------------

4. ATALA: ESKAERA BEREZIAK

JAR EZAZU "X" BEHAR DIREN LAUKIETAN

ERREGISTROAK

ALTA edo BAJA hileko itzulketen erregistroan ALTA 75 BAJA 76

ALTA edo BAJA batasun barruko operadoreen erregistroan ALTA 161 BAJA 162

PFEZ

- PFEZren zuzeneko zenbatespen erraztua 60 61 62

BEZ

- Kutxa irizpidearen araubide berezia 169 170 171

- BEZeko erregistro liburuak GFaren egoitza elektronikoaren bidez eramatea 280 281 282

- Faktura egiteko obligazioa hartzaileek edo hirugarrengeok betetzea 283 284

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia BEZean 66 67 68

Araubide berezi erraztua BEZean. 69 70 71

Ondasun erabilien, arte-lanen eta abarren araubide berezirako aukera: mozkin globalaren marjina AUKERATZEA 80 UKO EGITEA 81

Errentak esleitzen dituen entitate bateko bazkide, komunero edo partaide al zara? BAI 83 EZ 84

- Entitatearen IFZ - Entitatearen izena

SOZIETATE ZERGA

- 3/2004 Foru Arauaren II. tituluak jasotzen duen zerga araubide berezia aukeratzea AUKERATZEA 285 UKO EGITEA 286

- Kontsolidazioko araubideari uko egitea UKO EGITEA 287

5. ATALA: ZERGA EGOERA ETA AITORPEN-LIKIDAZIOAK

	BAI	EZ
Ba al duzu enpresa handiaren izaerarik?	89	
SOZIETATE ZERGA		
Behartuta al zaude Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztera?	90	
Zerga administrazio batean baino gehiagotan ordaindu behar duzu Sozietate Zerga?	163	
Sozietate Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauak 12.1 artikuluan jasotako entitate salbuetsia al da?	91	
Sozietate Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauak 12.2 artikuluan jasotako entitate partzialki salbuetsia al da?	164	
3/2004 Foru Arauan jasotako irabazi asmorik gabeko entitatea al da?	165	
Gipuzkoan ordaintzen al du zerga kontsolidazioko araubidean?	166	
- Taldearen entitate ordezkaria al da?	167	
PFEZ		
Ordaintzen al duzu atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako lan etekinik?	93	
Ordaintzen al duzu atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako hiri ondasun higiezin errentamendutik datorren etekinik?	94	
PFEZn erabiltzen den zenbatespen metodoa:		
- Zuzeneko zenbatespen arrunta	98	
- Zuzeneko zenbatespen erraztua	100	
BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA		
Behartuta al zaude BEZaren aldizkako aitorpena Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztera?	102	
- Baiezkoan, bete itzazu BEZari buruzko ondoko laukiak:		
- Araubide orokor edo arruntean al zaude?	103	
- Sartuta al zaude baliokidetasun errekarguaren txikizkako merkataritzaren araubide berezian?	104	
- Sartuta al zaude bidai agentzien araubidean, oinarri ezargarria banaka zehaztuz?	105	
- Sartuta al zaude ondasun erabilien, arte-lanen, zaharinen eta bilduma-gaien araubide berezian?	107	
- Sartuta al zaude ondasun erabili, arte-lan eta abarren araubide berezian, mozkin marjina batera zehaztuz?	108	
- Sartuta al zaude nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian?	109	
- Sartuta al zaude BEZaren araubide berezi erraztuan?	110	
- Sartuta al zaude kutxa irizpidearen araubide berrian?	172	
- Egin ohi dituzu kenkari eskubiderik gabeko eragiketa salbuetsiak?	168	
- Ezezkoan, bete itzazu BEZari buruzko ondoko laukiak:		
- Sartuta al zaude baliokidetasun errekarguaren txikizkako merkataritzaren araubide berezian?	112	
- Sartuta al zaude nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian?	113	
- BEZaren 3/2023 Foru Dekretu Arauemaileko 20. artikuluan arabera salbuetsitako eragiketak egiten al dituzu soilik?	114	
- BEZari lotu gabeko eragiketak egiten al dituzu soilik?	116	
- Ekonomia Itunaren Legea aplikagarri al zaizu?	115	

Administrazioaren Alea

EKICV GAO-I-2025-07047

1 IFZ	2 Deiturak eta izena edo sozietate izena	Erreferentzia zk.
-------	--	-------------------

4. ATALA: ESKAERA BEREZIAK

JAR EZAZU "X" BEHAR DIREN LAUKIETAN

ERREGISTROAK

ALTA edo BAJA hileko itzulketen erregistroan ALTA 75 BAJA 76
ALTA edo BAJA batasun barruko operadoreen erregistroan ALTA 161 BAJA 162

PFEZ

- PFEZren zuzeneko zenbatespen erraztua 60 61 62
AUKERATZEA ATZERA EGITEA KANPO GERATZEA

BEZ

- Kutxa irizpidearen araubide berezia 169 170 171
